



# EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA 2030

## Ingurumen-azterketa estrategikoa II. eranskina. Laburpen ez-teknikoa

2021eko maiatza





Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak (HPKP), 2014-2020 zehar indarrean egon denak, aurrerapen nabarmena ahalbidetu du EAEn sortzen diren eta tratatzen diren hondakin-mota desberdinen prebentzioari, kudeaketari eta tratamenduari dagokienez (hondakin arriskutsuak, ez-arriskutsuak, eraikuntza- eta eraispent-hondakinak –EEH– eta hiri-hondakinak). Indarraldia amaitzeko unea iritsita, eta hondakinen arloko Europako zuzentarau berriei eta zorrotzeneri erantzuteko beharrarekin batera, 2021-2030 aldirako esparru autonomikoko plangintza-tresna hori berrikustea planteatu da. Esparru-araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio zeregin hori.

HPKP 2030 plana, indarrean dagoen ingurumen-ebaluazioaren arloko araudia aplikatuz, ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) behar duen tresna bat da. Prozedura horrek, informazio publikoaren eta kontsulten faseetan zehar hainbat eragileren parte-hartzeari eta xehetasun-azterketari esker, Plana ingurumenaren arloan indarrean dauden estrategia, helburu eta arauekin erabat integratzea bermatzen du. Era berean, jardueren diseinuak eta lehenesteak planaren ingurumen-efektuak optimizatzeko aukera ematen du, haien eragin positiboak maximizatuz eta balizko inpaktu negatiboak minimizatuz.

Esparru horretan, landutako ingurumen-azterketa estrategikoaren (IAE) eskema eta edukiak bat datoz Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpen bidez eman zen irismeneko dokumentuan zehaztutakoarekin, 2021eko martxoaren 30ean.

HPKP 2030, aurreko HPKPa bezala, ingurumen-izaera osoa duen tresna da. Hondakinen arloko esparru-plan estrategiko gisa hartzen da, bat datorrena Europako araudiarekin eta estrategiekin (Europako Itun Berdea edo Green Deal eta Ekonomia Zirkularrerako EBko Ekintza Plan Berria nagusiki), estatukoekin (PEMAR, España Circula 2030, "Elikagai gehiago, hondakin gutxiago" izeneko estrategia) eta autonomia-erkidegokoekin. Azken horien artean, aipatzekoa da Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030, materialen erabilera jasangarrian aurrera egin nahi duena, premisa izanik hondakinik onena sortzen ez dena dela eta hondakin guztiak baliabide bihurtzeko; ideia hori HPKPren kontzeptu-oinarriaren parte ere bada. Helburuak honela laburbil daitezke:

- Hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko Europako araudi-eskakizunei erantzuna ematea epe labur, ertain eta luzean.
- Moldatze-kudeaketa ahalbidetuko duten ezarpen progresiboko neurrien bidez, hondakinek gaur egun EAEn sortzen duten ingurumen-arazo larria konpontzea.

Horretarako, HPKP 2030ek EAeko egungo egoeraren diagnostikoa egiten du lehenik, hondakin-korronte desberdinetarako, sortze-prognosia 2030erako, eta Planaren esparruan konponbideak hartzeko lehentasunezko zatia jo behar diren hondakin-korronteen identifikazioa. Hori oinarri hartuta, hau proposatzen du:

- **Ikuspegi estrategiko** bat, planaren oinarri ideologikoa laburbiltzen duena eta ingurumen-izaeraren iturria dena. Bere baitan hartzen ditu:



- Plana eraikitzeke erabiliko diren printzipioak (kudeaketaren hierarkia ezartzea pisu handiagoa bermatzeko prebentzioan, hurbiltasun-printzipioan, autosufizientzian eta unibertsaltasunean).
  - Prebentzioari, gaikako bilketari, balorizazioari eta ezabaketa murrizteari dagokienez 2030erako lortu beharreko %-ak ezartzen dituzten 4 helburu estrategikoak.
  - Helburu horiek lortzeko giltzarritzat jotzen diren jarduketak 10 dira guztira eta, besteak beste, honako alderdi hauek biltzen dituzte: legegintza-esparru zorrotzago bat zuzkitzea, ikuskatze- eta zehapen-mekanismoak handitzea edo detektatutako arazo nagusien konponbidea (EEHen eta zabortegetako hondakin plastikoak pilatzeko konponbidea).
- **Ekintza Plan** bat, honako hauek hartzen dituena:
- Helburu estrategiko bakoitzean zehazten diren helburu espezifikoak (50 helburu espezifiko guztira).
  - Plana garatuko den lan-ildoak.
  - Azpiegituren arloan identifikatutako beharrak eta horiek diseinatzeko eta kokatzeko irizpideak, ingurumen-inpaktu adierazgarriak sortzea saihesteko.
  - Hondakinen lehentasunezko korrontetarako aurreikusitako jarduketak (funtsezko jarduketak barne).

HPKP 2030en ingurumen-ebaluazioari begira, garrantzitsua da kontuan hartzea, alde batetik, tresnaren ingurumen-izaera hori, eta, bestetik, lurralde-eragin zuzena duten jarduketarik proposatzen ez duen plangintza estrategikoa dela. Alde horretatik, esan daiteke HPKP 2030a aplikatzeak, oro har, ingurumen-eragin **positiboa** izango duela EAEko ingurumenean.

Izan ere, indarrean dagoen plangintzari dagokionez, Europako eta estatuko hondakinen kudeaketaren inguruko eskakizunak handitzearen ondorioz, eta maneiatzeko eta tratatzeko teknologietan aurrerapen handiarekin batera, ingurumen-onura handiagoak ahalbidetuko dira aurreko aldietan baino.

**HPKP 2030eko helburu estrategikoetatik** eratorritako ingurumen-inpaktuak (EAEko 5.2 atalean xehetasun gehiagorekin deskribatuak) honela baloratu dira:



Helburu estrategikoak	Inpaktuak <sup>1</sup>									
	Hondakinak sortzea	Klima-aldaketan dituen ondorioak	Gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura	Lurzoruaren kutsadura	Lurzoruaren gaineko beste eragin batzuk	Osasun publikoaren gaineko eraginak	Natura-ondarearen gaineko eraginak eta paisaiaren degradazioa	Natura 2000 Sarea	Lehengaiak erauzteak	Arriskuak
HE1 (Prebentzioa): 2030erako hondakin-sorkuntzaren guztizko tasa % 30 murriztea BPGd unitate bakoitzeko 2016. urtearekiko	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊
HE2 Helburu Estrategikoa (Gaikako bilketa): 2030ean, jatorrian berezitateko hondakinen % 85 lortzea, masan.	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊
HE3 Helburu estrategikoa (Balorizazioa): 2030erako, bigarren mailako baliabide bihurtutako hondakinen % 85 lortzea, eta balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatzea.	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊
HE4 helburu estrategikoa (Ezabaketa murriztea): Hondakinen kudeaketa murriztea, 2030erako sortutako hondakinen % 15 baino gutxiago ezabatuz.	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊	😊

Balorazio orokor positibo hori gorabehera, eta HPKP 2030ek lurraldean eragin zuzena duen jarduerarik barne hartzen ez badu ere, espero daiteke haren garapenetik hainbat ekimen eta jarduera sortzea – helburuak betetzeko beharrezkoak direnak, bestalde –, lurraldean eragin hori izango dutenak eta, beraz, ingurumenean eragin negatiboak izan ditzaketenak. Alde horretatik, kontuan hartu behar dira:

- HPKP 2030 planaren babesean sor daitezkeen instalazioak, bai bertan berariaz definitzen delako haien beharra (adib., 6. funtsezko jarduketaren esparruko

<sup>1</sup> Inpaktuen balorazioa: 😊 Inpaktu positiboa.



instalazioak), bai Planaren helburu estrategikoak eta espezifikoak betetzeko beharrezkoak diren baina definitzen ez diren beste batzuk.

- Hondakinak kudeatzeko prozesuak HPKP 2030 planaren irizpideetara egokitzeko eta helburuak betetzea ahalbidetzeko aldatu/egokitu behar diren instalazioak. Kasu honetan, inpaktua lotuta egon daiteke bai lurzoruen okupazio batekin (oro har, lehendik dauden instalazioekiko mugakidetasunarekin), bai emisioetan, isurketetan eta abarretan aldaketak eragiten dituzten prozesuen aldaketekin.

Hauek dira HPKP 2030 planean aurreikusitako jarduketak nagusiak, hondakin lehentasunezko korronteekin lotuta, ingurumen-inpaktu negatiboko potentzial bat identifikatu zaienak, haren garapenean sor daitezkeen esku-hartzeen lurralde-eraginagatik:

Lehentasunezko korronteekin lotutako jarduketak	Ingurumen-inpaktu nagusiak	Balorazio orokorra <sup>2</sup>
<p>Gaikako bilketa eta balorizazioa hobetzen duten tratamendurako teknologia berriak edo erabilera berriak identifikatzeko azterketa eta proiektu pilotuak.</p>	<p>Azterketak egiteak ez du eraginik izango; hala ere, proiektu pilotuak martxan jartzeak instalazio berriak gaitzea eska dezake, eta, batez ere, lehendik daudenak egokitzea, teknologia berrien aukera desberdinak probatzeko. Alde horretatik, espero daitezkeen inpaktu nagusiak, instalazioaren tipologiaren arabera, hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lurzorua okupazioa</li> <li>• Lurzorua kutsadura</li> <li>• Kokapenaren arabera, natura-ondarearen hainbat elementuren gaineko eragina (espazioak, landaredia eta habitata, espezieak, interes geologikoko lekuak, etab.).</li> <li>• Hidrologiaren eta hidrogeologiaren gaineko eragina (kontrol-neurrien beharra)</li> <li>• Isuriak (klima-aldaketan eragindako ondorioak).</li> <li>• Herritarren gaineko eragina: zaratak, usainak, partikulak, haizeak lekualdatutako materialak...</li> </ul> <p>Bestalde, inpaktu positiboen artean, zabortegean amaitzen diren hondakin-bolumenaren murrizketa eta balorizazioa nabarmentzen dira (lehengaien erauzketan izandako murrizketa).</p>	
<p>Herritarren esku dagoen desamiantatze-plana (egituretako zuntz-zementuaren bilketa eta kudeaketa), foru-aldundiekin eta Osalanekin lankidetzan (10. FUNTSEZKO JARDUKETA)</p>	<p>Bilketa-planak hobekuntza dakar egituretako zuntz-zementuaren kudeaketan aurrera egiteari dagokionez, gaur egun arazo handia baitu. Hala ere, funtsezko jarduketaren alderdi kritikoetako bat da jasotako amiantoarentzat lurralde bakoitzean helmuga egokia aurkitzea. Horren ondorioz, lehendik dauden instalazioak handitu edo egokitu egin daitezke, zati hori bere gain hartzeko. Kasu honetan sortzen diren inpaktuek ondorio hauek eragiten dituzte: lurzorua okupazioa, lurzorua kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea.</p>	

<sup>2</sup> Balorazio orokorra: inpaktu positiboa; inpaktu negatiboa, lurraldean izan dezakeen eraginagatik; eragin horren garrantzia baloratu egin behar da, sustatzen diren berriazko ekimenak (planak eta proiektuak) ikusita.



<p>Euskal Autonomia Erkidegoak 2030era arte isurketaren autosufizientzia bermatzea, isurketa minimizatzearekin eta daudenak behar bezala itxi edo ixtearekin batera (2. FUNTSEZKO JARDUKETA)</p>	<p>Ez da zabortegi berriak instalatzea planteatzen; hala ere, lehendik daudenak handitzea ekar dezake, 2030era arte aurreikusitako isurketa-bolumena hartzeko, betiere HPKP planak isuria minimizatzea bermatzeko ezarritako murrizketekin. Lehendik dauden instalazioak handitzeak hainbat elementuren gaineko inpaktuak eragin ditzake: lurzoruaren okupazioa, lurzoruaren kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea.</p> <p>Bestalde, autosufizientziari dagokionez, autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioari egokitzen zaio, eta aurrera egiten du hondakinen garraio-fluxuen murrizketan.</p>	
<p>Bigarren mailako materialak biltegitzeko eta egiazatzeko konponbide integrala (6. FUNTSEZKO JARDUKETA)</p>	<p>Instalazioak ekimen pribatutik sor litezke. Kasu honetan sortzen diren inpaktuek ondorio hauek eragiten dituzte: lurzoruaren okupazioa, lurzoruaren kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea.</p>	
<p>Hondakin plastikoetarako eta horiek zabortegitik desbideratzeko behin betiko soluzioei laguntzea. (7. FUNTSEZKO JARDUKETA)</p>	<p>Arazo hori konpontzeko hainbat irtenbide aurreikusten dira, eta horietako asko abian jartzen diren proiektu pilotuetan lortzen diren emaitzen arabera izango dira.</p> <p>Baliteke instalazio berriak gaitu behar izatea edo daudenak handitu eta/edo egokitu behar izatea, soluzioak abian jartzeko. Ildo horretan, hainbat inpaktu sor daitezke: lurzoruaren okupazioa, lurzoruaren kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea.</p> <p>Bestalde, plastikoak zabortegian uzteko aurreikusitako murrizketak eragin positiboa du ingurumenean, eta aurrera egiten du hondakinak kudeatzeko hierarkiaren aplikazioan.</p>	

HPKP 2030 planaren hedapenetik eratorritako inpaktu negatiboak saihesteko eta/edo minimizatzeako, Planak zenbait **irizpide sartzen ditu instalazio berriak ezartzeko** (EAEko 6. atala), hain zuzen ere EAEn prozeduratik sortu direnak Planaren ingurumen-integrazioa handitzeko helburuarekin, honako hauek barne hartuta:

- Instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionamendua barne: teknologia eraginkorrenak eta ingurumenaren aldetik jasagarrirenak erabiltzen direla bermatzen dute.
- Instalazioak kokatzeko irizpideak: barne hartzen dute:
  - "Eremu desegoki edo baztertuen" zerrenda, ezaugarri natural eta/edo kultural bikainak dituztelako, hondakinak kudeatzeko instalazioak sustatu behar ez direnean.
  - Horrez gain, "Saihestu beharreko eremuen" zerrenda bat, hainbat arazoirengatik baztertutako eremuen artean sartu ez dena, baina, era berean, kokalekuak hautatzean saihestu behar dena edo, gutxienez, egokiak direla bermatzen duten azterketa espezifikoak egin behar zaizkiona.



- Instalazio berriak kokatzeko indartu behar diren eremu degradatuen identifikazioa, lehendik dauden eremu degradatuak lehenesteko jarraibideak barne hartzen dituen, eta EAEn lur eta harri naturalak hartzeko erabil daitezkeen eremu degradatu nagusien identifikazioa, egokitasun-analisiak egin ondoren (Bizkaian 2 eremu zehatz dira, eta Autonomia Erkidego osoan 63 harrobi; nolahi ere, zerrenda ez oso bat da, Foru Aldundien ekarpenekin aldatu daitekeena eta are Foru Aldundiekin handitu daitekeena).
- Instalazioak kokatzeko kontuan hartu beharreko irizpide gehigarriak, horien ingurumen-inpaktu txikiagoa sustatuz.

Irizpide horiek kontuan hartu behar dituzte HPKP 2030 garatzeko defini daitezkeen planek eta proiektuek, bai alternatibak hautatzean, bai planak/proiektuak diseinatzean eta gauzatzean (gainera, eta indarrean dagoen araudiak IEE edo IIEren mende jartzen dituen plan eta proiektuen kasuan, kasuan kasuko ingurumen-ebaluazioko prozeduretan), inpaktuak sortzea prebenitzeko eta murrizteko helburuarekin. Horiek aplikatzeak ez du eragozten planek eta proiektuek neurri zuzentzaileak eta, hala badagokio, konpentsaziozkoak jaso behar izatea, ingurumenean eragiten dituzten inpaktuak a priori ezabatu ezin badira.

Behin HPKP 2030 martxan jarritakoan, funtsezkoa da haren jarraipen egokia egituratzea, honako hauetarako:

- Hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzea eta, bat ez badatoz, jarduketak birbideratzea, emaitzarik onenak lortzeko.
- Zehaztutako printzipioak eta irizpideak aplikatzen direla bermatzea, Planaren garapenetik ingurumen-inpaktu esanguratsurik sor ez dadin.
- Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloko Europako eskakizunei erantzuten zaiela bermatzea, Euskal Autonomia Erkidegoak alde horretatik dituen erantzukizunak betetz.

HPKP 2030ek berak **adierazleetan oinarritutako jarraipen-sistema** oso bat ezartzen du, jarraipenen ardura duten organoak jasotzen dituen.

Planaren ingurumen-eraginen jarraipenari dagokionez, espero da plana abian jartzean Eusko Jaurlaritzak urtero egiten eta argitaratzen dituen EAEko goiburuko ingurumen-adierazleen bilakaera (ingurumen-profila) bultzatuko dela, baina ezin da kuantifikatu HPKP 2030en berriazko ekarpena ildo horretan, ezin baitira bereizi inpaktu/hobekuntzako beste faktore batzuen ondorioak. Maila espezifikoan, hondakinak kudeatzeko instalazio berrietatik edo HPKP 2030 planaren babesean sor daitezkeen eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa (planak) eta/edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (proiektuak) egin behar zaien instalazioen egokitzapenetatik eratorritako ingurumen-inpaktu positiboak eta negatiboak baloratu ahal izango dira. Horretarako, plan eta proiektu horien ingurumen-jarraipenean kontuan hartu beharreko adierazle batzuk proposatzen dira EAEn.